

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

36

AGINDUA, 2019ko azaroaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita 2019ko irailaren 10eko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza eskabideen ebazpena. Agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2019ko dirulaguntzetarako.

Ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 9ko EHAA, 128. zk., eta haren huts-zuzenketa 2015eko irailaren 8ko EHAAn, 170. zk.) arautzen du Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako dirulaguntzak emateko modua. Dekretu horretan ezarritakoari jarraikiz, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara emango da urteko deialdiaren ebazpena.

Horri jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Jendaurrean jartzea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko irailaren 10eko Aginduaren babesean aurkeztu diren erakunde eskatzaile onuradunak, lortu duten balorzioa, eta erakunde bakoitzari esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa (agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2019ko dirulaguntzetarako). Datu horiek guztiak eranskinean jasota daude.

2. artikulua.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadin agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 22a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

ERANSKINA

Eskatzailea	Puntuak	Esleitutako dirulaguntza
Fundación para la Europa de los Ciudadanos	35,63	5.084,00
Instituto 25 de Mayo para la Democracia	46,62	2.931,00
Iratzar Fundazioa	54,15	60.479,00
Ramón Rubial Fundazioa	38,01	32.167,00
Sabino Arana Fundazioa	75,74	181.839,00
Guztira:		282.500,00